


Romo Kultur Etxea




Bideoa beheara kargatzeko QR kodea hartu.

Bideo osoa ikusteko:
<http://www.getxo.eus/eu/servicios/comunicacion/notas-prensa/459>

Getxo
bizi ezazu



Nagusien Etxea: Trebatze eta aisialdi jardueretarako gela



Halleko eskailera



Erabilera anitzeko ekitaldi-aretoa



Euskaltegiko harrera-lekua



Musika taldeen entseguetarako areto bat

Ekipamenduak eraginkortasun energetikoaren gehieneko kalifikazioa lortu du

Romoko Kultur Etxea eraginkortasun energetiko onena duen udal eraikinetako bat da, A kalifikazio energetikoa lortu baitu. Eraikin batek eskura dezakeen eskaera maila handia eta gehieneko kalifikazioa da, bere diseinu jasangarriari eta bere klimatizazio-, aireztapen- eta argiketari sistemari esker.

Eraginkortasun maila hori eskuratzeko, eraikinek zenbait baldintza bete behar dituzte, hala nola eraikinaren ingurutzailerari, beroketa eta hozte sistema termikoei, etxeko ur beroaren sistemari eta argiztapenari dagozkienak. A kalifikazioa lortzen da energiaren kontsumoa batez bestekoa baino % 55 gutxiago bada.

Romoko Kultur Etxearen kasuan hori lor daiteke, klimatizazio sistema bat honako hauekin konbinatuz: geotermian oinarritutako azken aurrerapen teknikoak, kontsumo txikiko Led argiztapena, emisio txikiko beirak eta isolamendu termikoko ahalmen handikoak direnak, baita fatxadetan zulatutako altzairuzko xafren sistema bat ere. Zehazki, eraikinaren itxurak geruza biko sistema batean du oinarria. Horren barrualdean beirako xafletako errezel-horma jarraitu batez osatuta dago, eraginkortasun energetiko altua duena. Beste alde batetik, kanpoaldean eguzkiaren aurkako babes bolumetrikoa du, hainbat dimentsiotako trianguluz garatua, zulatutako altzairuzko xafletan. Izan ere, eraikinari bolumen berezia emateaz gain, ekipamenduaren jokabide energetiko ona ere izaten laguntzen dute: alde batetik, gehiegizko argia kontrolatzen dute, eta, bestetik, eguzkiak ematen duen beroa gutxitzen dute, eta horrek hoztean energia aurreztea ahalbidetzen du. Halaber, xafra zulatuak direnez gero, barrualdetik eurretan zehar ederki ikus daiteke.

Kontsumoan eta mantentze-kostuetan aurreztea

Okupatzen duten pertsonen ongizatean eta ingurumenean eragin positiboa izateaz gain, eraikuntza iraunkorraren aldeko apustu horrekin gainera, energia gutxiago kontsumitzen da eta, beraz, energia gehiago aurrezten eta mantentze lanen kostuak murrizten.

Eraginkortasunaren kontzeptua, halaber, ekipamenduak eskainiko dituen zerbitzuen zenbait arlotara zabalduko da, eta haren kudeaketako arloetara ere; hala, erabilgarri dauden baliabideak arrazionalizatu ahaliko dira.



Gaztelekua

Romoko Kultur Etxearen ekipamendu-etapa hasi da dagoeneko, 2B fasea amaitu ondoren

Romoko Kultur Etxearen eraikuntza etapa berri batean sartu da dagoeneko, bere barruko espazioak egokitzeko azken lanak egin ondoren, Romoko ekipamendu berri eraikitze proiektuaren 2B faseari dagozkionak. Egindako azpiegitura berriaren azken lanak, besteak beste, honako hauek izan dira: margoketa-lanak, sabai aizunak, hormak eta igogailuen, argien zein telekomunikazioen instalazioak egitea. 5.500 m² inguru ditu eta horietan islatzen dira bere espazioen arrazionaltasuna, funtzionaltasuna, zirkulazioetan optimizazioa, bolumen argiak, malgutasuna...; izan ere, ezaugarri horiek programa ordenatu bat antolatzen laguntzen dute.

Etapari berri bat

Ekipamenduaren etapa berriari, Romoko Kultur Etxeak izango dituen askotariko espazioak hornituko dira: altzariak, informatika eta abar, baita izango dituen zerbitzuen administrazio-kudeaketaren aldea ere egingo da. Gaur egun, lizitazio publikoan daude beharrezkoak diren ekipamenduak eskuratzeko kontratuak. Era berean, hainbat zerbitzu (ura, argia, klimatizazioa, igogailuak...) abian jartzeko ezinbestekoak diren administrazio-izapideak hasi dira, dagozkien lizentziak egin ostean; izapide horiek beharrezkoak dira Romoko Kultur Etxearen funtzionari dezan.

Ekipamenduak askotariko zerbitzu eta aisialdi-, kultura-, hezkuntza- eta gizarte-erabilera bateratuko ditu; horiek guztiak Getxoko familien, elkarleen eta erakundeen zeregin kultural eta sozialari lotutakoak, baliabideak arrazionalizatzeko aldera eta baliabide ekonomiko eta pertsonalen kudeaketan eraginkortasun handiagoa nahiz sinergiak emateko. Balioesten da 250.000 pertsona inguruk erabiliko dituztela instalazioak urtero.

8,37 milioi-euroko inbertsioa
2B fase hori amaitzearekin batera, Romoko Kultur Etxearen eraikuntzan egindako inbertsio orokorra 8.373.787 milioi eurokoa izan da, BEZ barne, hots, 1.262 euro eraikitako metro karratu bakoitzeko, BEZ kendu eta gero; zenbateko hori ezaugarri horietako eraikinak eraikitze batez bestean erabiltzen dena baino txikiagoa da.

Ba al zenekien...

... Romoko Kultur Etxeko liburutegiak irati-maiztasun bidezko kudeaketa sistema berriak izango dituela, erabiltzaileak erabilgarri dagoen material guztia modu autonomoan mailegatu eta itzuli ahal izateko? Horretarako, sistema bat ezarri eta ekipamenduak instalatu beharko dira, ohiko maileguak, automaileguak eta lapurreten aurkako sistemaren kontrolaz gain.

Xehetasunez...

Romoko Kultur Etxearen instalazioek iragarritasunari eta erabilera-segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dute, betekizun oso zorrotz eta zabalekin, eta eraikinaren diseinuaren berarekin direnak, premia bereziak dituzten pertsonen inklusiotik begiratu behar du. Markatutako estandarrik betetzeko helburuarekin, adibide batzuk aipatzearekin, hauek topatu daitezke: komun iragarri egokituak daude solairu guztietan, barruan aulkia biratzea ahalbidetzen dutenak, eta alboko transferentzia barrarekin; ekintza fisikoak egin dituzten duxak dauden tokian ere duxa egokituak daude, korridore luzeek gurgildun aulkien 180 graduko birak ahalbidetzen dituzte puntu guztietan; ate guztiak zabalera egokitu eta iragarriak dituzte; hiru igogailuek gurgildun aulkiekin sartzeko dimentsio eta edukiera dute, eta handienean esku-ohetarekin sartzeko modukoa da; harrera-lekuko mostradore baxuetako guneak ere badaude, gurgildun aulkia batetik ere bertako langileekin hitz egin ahal izateko; seinaleztapenak ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzako kolore-contrastearen baldintzak betetzen ditu; erliebedun eta braille hizkuntza sartzeko pentsatuta dago... Helburua pertsona guztiek modu inklusiboan ezintasuna duten pertsonentzako zerbitzuetan hobekuntza nabaria eskainiko duen ekipamendua erabili ahal izatea da.